

Populismoa eta gu

Azkenaldian, botere ekonomiko liberalak eragindako produkzio era zaharkituaren birrintze eta berre-raikitze garai honetan, sistemaren politikari eta komunikabideen diskurtsoetan gailentzen ari den hitza da populismoa.

Populismoa ez da izatez, hitz berria, historialariek “jokabide populista” deitu izan dutena, aspaldidanik dago jasoa liburu zaharretan. Esaterako, Julio Zesar erromatarra aipatzen da askotan populismoaren eredu. Zergatik? Bada, herriaren aldeko lege eta laguntzak bermatu zituelako, baina ez benetan herria piperrik inporta zitzaielako; herria bere alde jarritz, eta armada jada aldekoa zuenez, Erroma errepublikanoan eragin, eta betiko diktadore izateaz gain, errege izatea nahi izan zuelako, hau da, munduaren jabe.

Hori onartzen badugu, populismo hitzak zentzu txarra hartzen du, demago-goeak erabiltzen duten diskurtso faltsua den neurrian. Populismoa herritar arruntek entzun nahi dutena aldarrikatzea adierazten duen kontzeptua da, baina ezkutuan dauden helburu maltzurren menpeko, eta lider autoritarioek, tiranoek, euren onurarako egiten duten herritarren manipulazio hutsa.

Populismoa, gaur egun, fenomeno politiko nahasia, ideologikoki hutsaltzat



Iñaki Odriozola

IRAKASLEA

@Inaki_Odriozola

Populismoa fenomeno politiko nahasia da, ideologikoki hutsala, arduragabea, argudioa erabili ordez, emozioak pizten ditu zentzu txarrean

hartzen da, arduragabekeria adierazten duena; argudioa erabili beharrean, emozioak, zentzu txarrean, pizten dituen, betiere, elite batek bere diktadura ekonomikoa, bere hegemonia, mantentzeko, herria azpian hartuaz.

Nik argi daukat populismoa eskuinekoa bakarrik izan daitekeela. Baina azkenaldian, elite liberalaren morroiek, hitz

magiko bihurtu dute, batez ere, ondoren, ezkerreko ideia eta gobernuak erasotzeko. Eskuineko eta ezkerreko populismoa dagoela diote, herriaren aldeko jarrerak parekatuz, eta txarrena, herrikoitasuna, ezkerrekoa, eta herrikoikeria, eskuinekoa, bat eginaz.

Herriaren alde egitea, jokabide ideologiko zintzoa denean, ezkerrearen ikurra da: errekturtoak nazionalizatzea, politika fiskal eta sozial aurrerakoak aplikatzea, behartsuentzat nahiz langile arruntentzat babesa eskatzea, oinarritzko soldata, globalizazioaren aurrean burujabetza, produkzioarena edo energia eremuko aldarrikatzea.

Baina, hau da hau, neoliberalak lortu duten txiri-buelta diskurtsiboa: merkatu ekonomia bateratu eta bakarra oztopatzen duen guztia, eta estaldura “demokratiko” homologatuak zalantzan jartzen dituen guztia, omen da populista.

Eta larriena, ezkerrekoak kikildurik, ez dugulako entzun nahi eskuineko populistekin ezertan bat egiten dugula; isilik gaituzte, ahul benetan, gure ikuspuntuak adierazteko ezintasunez, eta kateatuta, berriro ere, euren diskurtsoan. Jokoz kanpo. Are gehiago, populisten aurka, berriro liberekin boterean jartzen laguntzeko hausnarrean, gaitz erdi izango delakoan!

Harrapazan/k! ■

 ARGIA

943 371 545

publiz@argia.eus

www.argia.eus/tarifak

Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.

Jarri publizitatea hemen